



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Zelaitu Jesusenganako bidea”

2020ko abenduaren 13a
Abenduko 3. igandea (B)

Joan 1, 6-8. 19-28

Agertu zan gizon bat, Jainkoak bialdua: Joan eban izena. Autormenerako etorri zan: argiaren autormena egitera, haren bidez guztiek sinestu egien. Bera ez zan argia, argiaren autormena egin behar ebana baino. Hau da Joan Bateatzaileak egin eban autormena, juduek Jerusalemetik abadeak eta Levitarrak bera nor zan itauntzera bialdu eutsoezanean. Joaneke argi eta garbi autortu eban: Ni ez naiz Mesias. Hareek itaundu eutsoen: Nor zara, bada? Elias zara? Joaneke erantzun: Ez. Hareek, orduan: Etortekoea dan profetea al zara? Eta harek: Ez. Orduan, esan eutsoen: Nor zara, bada? Bialdu gaituenei erantzuna emon behar deutsegu. Zer dinozu zeure buruaz? Joaneke, orduan: Ni, basamortuan oihuka diharduanaren ahotsa naz: "Zuzendu bidea Jaunarentzat", Isaias profeteak esan eban lez. Bialdutako hareetariko batzuk fariseuak ziran, eta itaundu eutsoen: Zergaitik bateatzen dozu, bada, ez bazara Mesias, ez Elias, ez etortekoea dan Profetea? Joaneke erantzun eutsen: Nik urez bateatzen dot. Zeuen artean badozue, ostera, ezagutzen ez dozuen bat, nire ondoren datorrena; eta ni ez naz inor beraren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Guzti hau Betanian jazo zan, Jordan ibaiaz bestaldean, han ziharduan-eta Joaneke bateatzen.

Zuen artean dago zuek ezagutzen ez dozuen norbait. Jon Bataiatzailea argiaren aurretik bialdua izan da.

ZELAITU JESUSENGANAKO BIDEA

Jose Antonio Pagola

«**Bada zuen artean ezagutzen ez duzuen bat**». Jesusez esan ditu hitz horiek Joan Bataiatzaileak; bataiatuak izateko, Jordan ibaira doan jende artean baitabil hura, oraino agertu ez bada ere. Hain juxtu, bere kezka guztia «**bidea zelaitzea**» du Joaneke, jende hark Jesusengan sinetsi ahal dezan. Horrela aurkeztu ohi zuten Bataiatzailearen imajina lehen kristau-belaunaldiek.

Baina Bataiatzailearen hitzak halako moduan daude emanik, non, geure burua kristau jotzen dugunok, gaur irakurrik, galdera kezagarriak eragiten baitituzte. Gure artean da Jesus, baina ezagutzen al dugu zinez?, bat egiten al dugu harekin?, hurbiletik jarraitzen al diogu?

Egia esan, beti Jesusez mintzo gara Elizan. Teorian ez da ezer guretzat hura baino garrantzikoagorik. Baina, gero, hainbat jirabira ematen ditugu geure ideien, egitasmoen eta ekintzen inguruan, non, ez batere gutxitan, bigarren maila batean gelditzen baita Jesus. Geuk «ezkututzen dugu» Jesus, konturatu gabe, geure protagonismoaz.

Agian, hau du kristautasunak bere zoritxarrik handiena: bere baitan «kristau» direla esaten duten hainbat eta hainbat gizon-emakume izatea, bihotzean Jesusen arrastorik ez dutela. Ez dute ezagutzen. Ez dute haren bizi-arnasarik. Ez ditu hark erakartzen, ez liluratzen. Irudi zurrin eta bizirik gabea da Jesus haiengan. Mutu da. Ez die esaten bizitza arnastuko dien ezer berezirik. Haien bizitza ez du markatzen Jesusek.

Eliza honek Jesusen «lekukoen» premia gorria du, haren antzeko izango diren fededunen, kristauen premia, beren izaeraz eta bizieraz Kristogan sinesteko bidea erraztuko dutenen premia. Jainkoaz hark bezala hitz egingo duten lekukoen beharra du, Jainkoaren errukizko mezua hark egiten zuen bezala komunikatuko dutenen beharra, Aitaganako konfiantza hark egiten zuen bezala kutsatuko dutenen beharra.

Zertarako dira gure katekesiak eta predikuak Jesukristo ezagutzera, maitatzera, hari fede eta gozotasun handiagorik sinestera ez bagaramatzate? Zertarako dira gure eukaristiak Jesusekin, haren egitasmoarekin, guztientzat hark egin duen buru-eskaintza gurutzatuarekin bat egiten laguntzen ez badute? Elizan inor ez da «Argia», baina guztiok distiraraz dezakegu geure bizitzan. Inor ez da «Jainkoaren Hitza», baina guztiok izan gaitzek kristautasunaren ardaztat Jesukristo hartzera gonbidatzen eta eragiten duen ahots. Hau izan liteke gaur egun gure tentazioa. «Basamortura» ez joan nahi izatea. Konbertsio-premiari izkina egitea. Aldatzera dei egiten digun ahots bati ere kasurik ez egitea. Edozein gauzarekin geure arreza zabartzea, geure beldurra ahantzi eta Jesu Kristoren egiari «bai» esateko geure adore-falta disimulatzeko.

Miresgarria da «**bere bekatuak aitortu**» delako judu-herriaren irudi hori. Ez ote gara egungo kristauok kontzientzi azterketa kolektibo bat egin beharrean, maila guztietan, geure hutsegiteak eta bekatuak aitortzeko? Aitorpen hori gabe, daitekeena ote «**Jaunari bidea prestatzea**»?